



Pinttorekin barrabaskeriatan. - Anita Maravillas antzerki taldeak "Pintto Pintto" lana eskaini zuen larunbat arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean. Haur kanta ospetsuan bezala, Pintto txakur bihurria da antzezlaneko protagonista. Galdutako animalia garbitegiko bi langilek aurkitzen dute eta haren lagunak bihurtzen dira. Hasieran haren beldur dira, baina pixkanaka elkar ulertzen eta maitatzen ikasten dute. Adiskidetasunaren aldarrikatu nahi du Ivan Alonsok eta Javier Renobalesek zuzendutako lanak. Laguntasuna dirudiena baino sinpleagoa dela azaldu nahi du "Pintto"-k. Aurreiritzien gainetik, hurkoa ezagutu eta onartzearen garrantzia nabarmentzen du antzezlanak. Miren Larrea eta Valentina Raposo aktoreekin bertaratutako umeek barre eta algara ugari egin zuten. 2007tik daramate lanean Anita Maravillas antzerki taldeko kideek, eta Euskal Herriko eta kanpoko herri askotan aritu dira. Erabiltzen dituzten txontxongiloak kalitate handikoak dira. Izan ere, eszenografiari dagokion garrantzia eman behar zaiola uste dute.

3 GIZARTE ZERBITZUAK EH Bildu autobus zerbitzuak murriztearen aurka

Lasarte-Oriako eta Usurbilgo EH Bilduk agerpen bateratua egin zuten ostiralean. Azaldu dutenez, Aldundia ospitaletako autobus zerbitzuak murriztu ditzake. "Parte hartze prozesu baten ondorioz" ezarritako linea dela aldarrikatu dute ordezkarik Pablo Barriok eta Jone Urdampilletak. Salatu dituzte "erabakiaren atzean egon daitezkeen interesak".

5 BERDINTASUNA Berdintasunaren alde, martxa eta mugimendu ugari

Emakumearen Nazioarteko Eguna izan zen pasa den asteartean. Lasarte-Orian hura ospatzearen eta emakumearen eta gizonaren arteko berdintasuna aldarrikatzeko ekintza ugari egin dituzte astean zehar eta asteburuan. Horien artean, lehenengo aldiz egin den berdintasunaren aldeko martxa eta zunba maratokia.



8 MUSIKA Hilotzek bere lehenengo lan luzea aurkeztu du

"Giza Ankerkeria" da Hilotz taldearen lehenengo disko luzea. Taldeko baxujole eta abeslari Mikel Yarzarekin hitz egin du TXINTXARRIK, eta haren nondik norakoak azaldu ditu. Zortzi katek osatzen dute eta thrash eta death metal estiloak uztartzen dituzte, nahiz eta beste musika moten eragina izan.

Josue Igeltseritza S.L.

Igeltseritza orokorra

- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak
- Gremioen koordinaketa

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

ELECTRICIDAD ARREGUI

ESKAINZA ZABALA LED ARGITAN

Sabaiko argiak, aplikeak, mahai gaineko lanparak...

BERRIA!

600 857 586
www.electricidadarregui.com

Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna elektrikoak • TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

MUSIKA

Doinu klasikoak ostiralean

Musika Topaketak egingo dituzte Manuel Lekuona kultur etxean 19:30ean

Musika klasikoaren maitaleek galdu ezinezko zita izango dute ostiral honetan. Izan ere, Dana laukoteak eta Verushka hirukoteak kontzertua eskainiko dute Manuel Lekuona kultur etxean. Konpositore klasikoen piezek osatuko dute bi taldeen erreperitorioa. Musikene EAEko musika goi eskolako ikasleak dira musikari guztiak, eta horietako batzuk Euskadiko Gazteen Orkestrako bakarlarriak ere badira.

Manuel Lekuona kultur etxean egingo dira lehenengo aldiz Musika Topaketak. Oraingoan, Dana laukoteak eta Verushka hirukoteak eskainiko dute kontzertua Lasarte-Orian.

Arratsaldeko 19:30ean hasiko da emanaldia, eta Musikeneko ikasleek osatutako bi taldeek konpositore klasikoen piezak eskainiko dituzte ordubetz.

Dana laukotea

Hari laukoteak Antonin Dvorak egile pragarrak XIX. mendean konposatutako pieza eskainiko du.

Andoni Mercero maisuak gidatuta, David Santamaria eta Unai Pujol biolinek, Ane Agirre biolak eta Agate Amilibia txeloak osatzen dute laukotea. Haietako hiru Euskadiko Gazteen Orkestrako bakarlarri dira.

Beste zenbait taldetan ibilitako musikariak izanik ere, elkartzea erabaki dute Dana laukotea osatuz

"Americano" lana interpretatuko dute. Izen hori du txekiarrek AEBetan zegoela idatzi zuelako. Eskala pentatonikoan eginga dago hasieratik bukaerara.

Verushka hirukotea

Aram Khathaturiam eta Igor Stravinsky musikarien lanak



Biolinak, klarineteak eta pianoak osatutako hirukotea da Verushka.

ekarriko dituzte Verushka hirukoteko kideek. Lehenaren pianorako, biolinerako eta klarineterako hirukotea eta bigarrenaren "Soldadu baten istorioa" obraren moldaketa eskainiko dituzte.

Edurne Suso biolinjoleak, Pablo Piñeiro klarinetejoleak eta Andres Martinez pianojoleak osatzen dute Verushka.

Musikeneko ikasleak izanik, esperientzia dute beste talde batzuetan. Gabriel Lloidiren gidaritzapean elkartu dira oraingoan berezko ganbera taldea osatzeko asmoarekin.

Musikeneko kanpo harremanetarako arduradunak azaldu zenez, "ez da ohikoena musika tresna hauek osatutako hirukoteak ikustea". Dena den,

"konpositore handiek horientzako idatzi dute". Stravinskyren kasuan, ordea, eurek moldatu dute pieza.

Musika klasikoaren zaleek aukera bikaina edukiko dute ostiral honetan gustuko musikarekin gozatu ahal izateko. Manuel Lekuona kultur etxean izateak jende gehiago gerturaztea ahalbidetuko du.

Kataluniarren ekarpenen gainean hausnartuz



Kataluniako prozesuaren aldeko etorkinek osatzen dute Sumate elkartea.

Gure Esku Dagok 2016an antolatutako lehenengo Topagunea egin zuten ostiral arratsaldean.

Sumate elkarteko kide Jose Maria Claverok eta Joan Solek Kataluniako prozesuari buruzko hausnarketak partekatatu zituzten.

Andaluziatik eta Estatuko beste leku batzuetatik Kataluniara bizitzera joandako pertsonak osatzen dute elkartea, eta azken urteetan emandako prozesu politikoaren aldekoak dira.

Lehenak adierazi zuen eskubide sozial guztiak bermatuko dituen estatu batean bizi ahal izateko konstituzio


berri bat behar dutela Katalunian.

Espainiarraren moldaketa batek ez luke hori lortuko eta, ondorioz, estatu berri baten beharrez ikusi direla nabarmendu zuen.

Joan Sole gazteen inplikazioari buruz aritu zen. Etorkizunera begira herrien burujabetzaren garrantzia azpimarratu zuen.

EAEko CCOO sindikatuko buru izandako Jesus Uzkudunek ere hitz egin zuen bertaratutakoekin.

Martxoaren 15ean egingo dute hurrengo topagunea, eta kirolariarekin arituko dira erabakitze eskubideari buruz hizketan.

Diruz laguntzen duten erakundeak**Babeslea**

LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea**Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri**Erredakzioa:**

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso, Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika

publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

ANTZERKI EGUNA



Goizetik gauera arteko ekintzak antolatu dituzte Kukuka antzerki eta dantza eskolako lagunek.

Antzerkiarekin gozatzeko topaketa

Lasarte-Oriako lehenengo Antzerki Topaketa egingo da larunbatean

Martxoaren 27an ospatzen da Antzerkiaren Eguna. Aste-bete aurreratuko zaio Lasarte-Oriako Antzerki Topaketa aurten, eta emanaldiz beteriko jardunaldi bat ospatuko da herrian. Goizetik gauerako ekitaldiak prestatu dituzte Kukuka antzerki eta dantza eskolako lagunek.

TXINTXARRI

Aste Santua dela eta, Antzerkiaren Eguna hilaren 19an ospatuko da Lasarte-Oriako. Egun osoko egitaraua antolatu du Kukukak.

Bi bloketan banatu dute Antzerki Topaketa. Goizez antzerki tailerra egingo da, eta maratonia arratsaldean.

Antzerki tailerra

Haur eta helduei zuzendutako ekintzak irekiko ditu topaketak.

11:00etatik 13:00etara egingo da antzerki tailerra Sasoeta ikastetxeko gimna-

sioan. Parte hartu nahi duen edozeinek ditu irekita ateak. Hala ere, ohartarazi dute haurrek nagusi baten laguntza izan beharko dutela.

Izena eman beharko da 655 847 345 telefonoan.

Antzerki maratonia

Eguneko ekintza nagusia arratsaldean zehar egingo dute. Haurrei zuzendutako antzerkia egongo da Manuel Lekuona kultur etxean.

“Kondaira baten truke” antzezlanaren arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta Patata Tropikal antzerki taldearen eskutik dator.

Ondoren, herriko taber-

netan egingo dituzte zenbait emanaldi gaua iritsi bitartean.

Abend kafe antzokian Andoaingo Katramila eta Lasarte-Oriako Kukuka antzerki eta dantza eskola arituko dira 18:30etan.

Kale berean, 19:30etan, Telmo eta Haritzek Furia Beltza tabernan ‘Bikarrizketa’ egingo dute.

Elurtza tabernan, kale Nagusian, “Eltxoak” antzeztuko du Amaia Irazabal aktorea.

Topaketak Jalgi kafe antzokian amaituko dira. Beatriz Egizabal ipuin kontalariak “Baubo” eskainiko die bertaratutakoiei, eta Anduriña eta Txefok “Flamenquito” antzeztuko dute.

Taberna batetik bestera kale animazioa egongo dela azaldu dute Kukukako lagunek. Bestalde, emanaldi guztiak doakoak izango dira.

GAZTELEKUA

Ikasketarako laguntza zerbitzua

Martxoaren 3an, ikasketarako laguntza zerbitzu berria hasi zen martxan Gaztelekuan. Zerbitzua ostegunero 18:00etatik 20:00etara eskainiko da.

Hurbiltzen diren gazteei zalantza akademikoak argitzeko monitore bat egongo da Gaztelekuko ikasketa-gunean. Ikasketarako laguntza zerbitzu publiko hau, laguntza puntual gisa sortzen da; beraz, erabiltzaileen jarraipen akademikorik ez da egingo.

ERRIGORA

Oliba olio eskaeren jasotzea

Errigora ekimeneko lagunek oliba olio eskaera egin zuten herritarrei gogorarazten die eskaerak jasotzeko egunak martxoaren 15 eta 16a direla.

Otaegi zapateria ohia zenean, Goikale 8 zenbakian, banatuko dira eskaerak: martxoak 15a, asteartea, 16:00etatik 19:00etara eta martxoak 16a, asteazkena, 11:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 19:00etara.

Errigorako lagunek pozik daude aurtengo kanpainak Euskal Herria osoan izan duen arrakastarekin. Izan ere, 75.000 litro olio banatuko dira 5.000 etxetara, iaz baino %65 gehiago.

LANBIDE

Andoaingo La Salle Berrozpen eskualdeko Enplegu Zentro bakarra

Lanbidek beste urte betez Andoaingo La Salle Berrozperi berriro ere lanean ari diren zein langabezia daudenei zuzendutako Eskualdeko Enplegu Zentro bakarra esleitu dio.

Zentro honetan doako zerbitzua eskaintzen zaie Lanbiden izena emanda daukaten guztiei. Bertan lana bilatzeko beharrezko diren baliabide guztiak aurki daitezke, baita interesgarria izan daitekeen informazio eguneratua ere.



GAZTE KLUBA

Gozogile trebeak

Gazte Klubeko lagunek postre lehiaketa ospatu zuten ostiral arratsaldean Okendo plazan. Bizkotxoak, batidoak, gozo-brotxetak... denetarik egin zuten sukaldari gaztetxoek.

Yolanda tabernako kideak epaimahai izan ziren eta ez zuten lan erraza izan. Azkenean, gailera, zerealak, yogurra, marrubia eta nata zuen kopak eskuratu zuen lehen saria eta Masterchef Lacasitoren taldeak talde hoberearena.

Ospitaleko autobus zerbitzuak murriztearen kontra

Lasarte-Oriako eta Usurbilgo LEH Bilduk agerraldia egin zuten ostiral eguerdian. Bi herriak Donostiako ospitalekin lotzen dituen autobus zerbitzuaren murrizketaren aurka agertu dira ordezkari Pablo Barrio eta Jone Urdampilleta, zenbait herritarren babesarekin.

Salatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak beste autobus zerbitzu batzuk bertan behera utzi izana, eta “Lasarte-Oria eta Ospitaleak lotzen dituen linean murrizketak” egon daitezkeela azpimarratu dute.

“Jakin badakigu bilerak egin direla” eta Aldundiak “murrizketen politika” aplikatuko duela diote Barriok eta Urdampilletak.

2013an prozesu parte hartzaile baten bitartez ezarritako zerbitzua izan zela diote Lasarte-Oriako eta Usurbilgo EH Bilduk.

Erabakiaren atzean “Interes ekonomiko handiak” dauden “susmoa” dutela adierazi dute, eta horiek ez dietela herritarren beharrei erantzuten.

Nabarmendu dute ospitale-takoa “ezinbesteko zerbitzua”



Lasarte-Oriako eta Usurbilgo EH Bilduko ordezkari Pablo Barrio eta Jone Urdampilleta zenbait herritarren babesarekin.

dela. Izan ere, “aparkatzeko zailtasunagatik edota eritasunagatik” kotxean erabiltzea dese-

rosoa da EH Bilduren ustez.

Herritar eta eragileei mugitzeko gonbidapena luzatu

diete. “Autobusaren alde orain mugitu daitezela, autobusean mugitu ahal izateko”.

Goza ezazu uda euskaraz!

Oporraldi eskaintza erakargarria herriko gazteentzat, aterpetxe eta KTG Kanpaldiak

Albenizera, Donemiliagara, Bizkaiara kostaldetik edo Iparraldera. Lasarte-Oriako LH3 eta DBH4 maila arteko gazteek uztailan primeran igarotzeko aterpetxe edo kanpaldi ibiltariak dituzte Ttakun Kultur Elkartearen eskutik. Kirola, jokoak, dibertimendua, esperientzia berriak... aspertzeko astirik ez dute izango eta gutzia, euskaraz.

TXINTXARRI

Aste Santua ate joka dugu. Ikasturtean bi asteko etena dute etxeko txiki eta gazteek. Baina hauek igaro eta udako oporraldietan pentsatzen hasiko dira. Hori dela eta, Ttakun kultur elkarteak Udaren laguntzaz, LH4-6 mailako eta DBHko gaztetxoei zuzendutako uztailako eskaintza aurkeztu du.

Kirola, jokoak, eskulanak, bibak... jarduera ugari egin ahalko dituzte hauetan.

Aterpetxeak

Araba aldera egingo dute aurre LHko gaztetxoek.

LH3-4ko laguntxoek uztailaren 18tik 24ra Albenizera aterpetxean izango dute abentura ederra.

LH5 eta LH6 mailakoek, berriz, uztailaren 5etik 16ra Donemiliagan lagunekin hamaika joko eta bihurrikeri egiteko aukera izango dute.

Udako Txokoekin batu

Gainera Donemiliaga eta Albenizera joaten diren laguntxoek haien oporraldia Udako Txokoekin uztartzeko aukera ere badute.

Donemiliagan lagun berriak egin ostean, Udako Txokoetan hauekin jolasten jarraitzeko aukera dute LHko zaharrenek.

LH3 eta 4koek Udako Txokoetatik udaleku itxietako jardunera egingo dute salto eta Txokoetako azken festan ere parte hartu ahalko dute.

KTG kanpaldiak

DBHko lagunak esperientzia berriak bizitzeko aukerak izango dituzte KTGko kanpaldi ibiltariei esker.

Eusko Western kanpaldian DBH1-2 mailako gazteak Bizkaia aldera joan dira kostatik. Kanpaldia uztailaren 9tik 16ra izango da.

Zaharrenek DBH3 eta 4 mailakoek Iparraldera egingo dute Mugarik Gabeko kanpal-



LH3 eta 6 arteko gazteei zuzenduta, natura, kirola eta dibertsioa nahasten dituzten egitarauak izango dira Albeniz eta Donemiliagan.

dian. Hauek uztailaren 17an aterako eta 29an bueltatuko dira etxera.

Izena ematea

Oporraldi hauetako izena ematea bihar irekiko da lehenetsuta duten gazteentzat. Hau da, Ttakuneko bazkidea, iaz hauetako oporraldiren batean izandako gaztea, Gazte Klubeko kidea eta Kuadrillategiko kidea izan behar da.

Gainerako gazteek Aste Santuen ostean, apirilaren 4tik aurrera egin ahalko dute inskripzioa. Maiatzaren 5a izango da oporraldi hauetan

izena emateko azken eguna.

Inskripzioa egiteko Ttakuneko bulegoan eskuratu ahalko da izena emateko orria.

Honetaz gain, gaztearen NAN eta familia liburuaren kopia ere beharrezkoa da.

Ordainketa

Antolatzaileek azpimarratzen dutenez, plaza ordainketa egitean baieztauko da eta plazak esleitzeko orduan, hurrenkera kontuan izango da.

Oporraldien ordainketa egiteko bi aukera daude, bata Ttakuneko bulegoan txartelaz egitea edo Kutxabankeko

2095-5048-18-1061552351 kontuan diru-sarrera egitea. Honetan hauraren izena jarri behar da kontzeptuan.

Bilerak

Guraso bilerak ikasturtea amaitzean dagoela egingo dira. Donemiliaga eta Albenizkoak ekainaren 9an eta DBHko kanpaldietakoak ekainaren 17an.

Hauetan egitaraua edo ibilbidea eta eraman beharrezko ekipamendu edo materiala azalduko zaie guztiei.

Aterpetxea edo kanpaldi ibiltaria guztiek primeran izango dituzte oporraldiak.



Kanpaldi ibiltarietan Euskal Herria beste era batera ezagutzeko aukera dute parte hartzen duten gazteek.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

ikusteko, saioko bi sarrera zozketatuko ditugu Ttakuneko bazkideen artean!!

Ttakuneko bazkide bazara eta zozketan parte hartu nahi baduzu, eman izena 943 37 14 48 zenbakian, publizitatea@ttakun.eus helbidean edo pasa zaitetz Ttakuneko bulegotik martxoaren 18a baina lehen!



Lasarte-Oriako irakurle txokoa



Saioak apirilaren 16an izango dira 16:30etan eta 19:00etan Manuel Lekuona kultur etxean

Loidibarren sutan jarri zuten KTGko gazteek

Kuadrillategin parte hartzen duten gaztetxoek KTG Sutan jaialdia antolatu zuten larunbatean Loidibarren frontoian.

DJ Katsondeok girotu zituen jaialdiko lehenengo orduak. Skakeo eta The Garax taldeak aritu ziren ondoren, ska eta punk doinuez frontoia astinduz.

Gazteek musika ekitaldiak antolatzeak eskatzen dituen urratsak ezagutzea du helbu-

ru. Hortaz, musika taldeekin harremanetan jartzeaz, sarreak saltzeaz eta ogitartekoak prestatzeaz gazteak arduratu dira, besteak beste.

DBH 4ko ikasleek antolatutako ekintza izanik ere, Kuadrillategiko kide eta begirale ugari gerturatu ziren larunbat gauean Loidibarren frontoiera.

01:30ak arte aritu ziren denak kantuan eta dantzan.





Okendon hasi eta bukatu zen berdintasunaren aldeko martxa.



Zunba maratokiak astindu zuen igande goiza.

Berdintasunaren alde martxan

Ekintza ugari asteburuan emakumeen eskubideen alde

Emakumearen Nazioarteko Eguna asteartean izan arren, asteburua bitartean luzatu ziren hari lotutako ekintzak. **Lehenengo aldiz Lasarte-Orian, berdintasunaren aldeko martxak herria zeharkatu zuen larunbat eguerdian.**

TXINTXARRI

Ekintzaz beterikoa izan da pasa berri den astea. Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko helburuarekin egitasmo ugari hartu dituzte Lasarte-Oriako kaleak.

Martxa

Okendo plazatik atera zen larunbatean berdintasunaren aldeko

lehenengo martxa. Lasarte-Oriari itzuli osoa egin ostean, nahi zutenek masajea jaso zuten.

Goizeko 11:00etan gerturatu zirenek berdintasunerako dekalogoia eta bisera jaso zituzten.

Zunba

Igandea era aktiboan hasi zuten lasarteoriarrek. Okendo plazako zunba maratokiaren

gorputzak astindu zituzten denbora luzez.

Semblante Andaluz elkartean minbizia eta elikadurari buruzko hitzaldia antolatu zuten

Ostiraleko ekintzak

Emakumeen pala txapelketa jokatu zen ostiral arratsaldean Loidibarren frontoian.

Ondoren, Xirimiri Elkartearen emakumeen afaria egin zuten.

Lan eta Lan antzerki taldeak, halaber, "Un espíritu burlón" lana aurkeztu zuen Manuel Lekuona kultur etxean.



Hitzaldi eta kirol ekitaldiak egin zituzten ostiralean.



Bost kilometro ibili ostean masajea jasotzeko aukera izan zuten.



Lan eta Lan antzerki taldeak "Un espíritu burlón" antzezlan eskaini zuen Manuel Lekuona kultur etxean.

MAITE
ESTETIKA ARETOA

Ordu-tegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

Aitatxo, har ezazu egun bat zuretzako!

- Ez dakizu zer oparitu aitaren egunean? Zure aurrekontura egokitutako opari-txartela egingo dugu
- Tratamendu eta estetika zerbitzuen artean aukeratu dezakezu, edo bono bat egin dezakegu berak nahi duen zerbitzuan erabiltzeko!

Mota ezberdinetako depilazioak - Manikura - Ultramererik gabeko beltzarantzea - Aurpegiko tratamenduak

CHURRUC
formación

OPOSAKETA ETA POLTSAK OSATZEKO EPEAK ZABALIK

Udaltzaingoa, Ertzaintza, Suhiltzaile, Justizia, Administrazioa, Correos, Osasungintza (Aragoi)

Praktikak Gipuzkoan
egiteko
eskaintza zabala heziketa kualifikatuan

Aita Larroka kalea 7 behea
Gros auzoa, Donostia
Tel. 943 42 40 44 - 636 555 265
www.churrucaformacion.com

- FORMAKUNTZA ESPEZIALIZATUA -

PILOTA.

Ezin borobildu herritarren aurrean

Arteaga II.ak eta Apraizek 22-15 galdu zuten Agirre eta Larunberen kontra Mitxelinen

Profesional mailara jauzia egin zuenetik lehenengo partida jokatu zuen Axier Arteagak Lasarte-Orian ostiralean. Promoziozko binakako txapelketan ordura arte norgehiagoka guztiak irabazitakoa zen, baina ligaxkako azkena ezin izan zuen bereganatu. Bere ohiko atzelari Ander Imazek Jon Ander Albisuren hutsunea bete zuen txapelketa nagusian eta ez zen Mitxelinen lehiatu. Bere ordezkari Alexis Apraiz gernikarrak jokatu zuen.

MARTIN VICIOSO

Lasarteoriatar ugari gerturatu zen ostiral gauean Mitxelingo frontoira herrikide Axier Arteagaren partida ikustera.

Ezin izan zuen garaipena erdietsi baina finalerdietarako txartela eskuratua zuen dagoeneko. Izan ere, Agirre eta Larunberen aurkakoa izan ezik, beste partidu guztiak irabazi dituzte Arteaga II.ak eta Imazek.

Larunbe nagusi

Partidu borobila egin zuen Mikel Larunbe pilotari galdakoztarrak. Apraiz baino gehiago izan zen, eta oso tanto gutxi galdu zituen. Agirre aurrelariak ere bere aukerak baliatu zituen, sendo jokatu.

Arteaga II ez zen maila kaxkarrean aritu, baina markagailuan atzean izateak ez zuen lasarteoriatarra lagundu. Errematerako aukera garbirik ez zuen izan eta ezin izan zuten partiduaren norabidea aldatu.

Herritarren babesa ez zuen falta izan eta, seguru aski, goi mailako pilota berriro ere Mitxelinen ikusteko asmoz aterako ziren asko.

Finalerdietan izango du Axier Arteagak hurrengo erronka. Ofiziala ez den arren, bere ohiko atzelari Ander Imazen laguntza izango du seguruenik, espero baita Jon Ander Albisu datoren asterako osatuta egotea.

Atariko partida estua

Berasaluzek II.ak eta Aretxabaletak 22-19 irabazi zuten



Ostiralean galdu arren, finalerdietan izango da Axier Arteaga.

Elezkano II.aren eta Beroizen aurkako atariko.

Lehenengo tantoetan errenta lortu zuten Pablo Berasaluzek eta Andoni Aretxabaletak, eta bazirudien aise irabaz zezaketela.

Elezkano eta Beroiz piztu egin ziren aurkariak lan erdientara iritsi aurretik eta markagailua orekatzea lortu zuten.

Azkenean berriztarra eta markinarra 22 eta 19 nagusitu ziren. Urte amaieran erretiratu den aurrelariak ez zuen

huts egin Lasarte-Orian eta kalitate handiko tantoak eskaini zizkien bertaratutako.

Intzaren garaipen gazigozoa

Udaberri txapelketako finalerdia jokatu zituzten Intza K.E. ko pilotariak larunbat goizean. Joanekoan Hernaniren aurka 22-11 galdu ostean, balentria handia egin behar zuten Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak finala jokatu ahal izateko.

Orekatua izan zen nor-

gehiagoka eta lasarteoriatarrek ezin izan zuten markagailuan alde egin.

Azken tantoetan erremate on batzuk baliatu ondoren, Intza K.E.k garaipena eskuratu zuen, 22 eta 17.

Ez dira finalean izango, baina denboraldi bikaina egin dute pilotari lasarteoriatarrek; Gipuzkoako bigarren mailako txapelketa izan eta Udaberri txapelketako lehenengo mailako finalerdietara ailegatu baitira.

KIROLDEGIA.

Kiroldegirako material berria erosi du Udalak

Kardia eta muskulazioa lantzeko material berria erosi du Lasarte-Oriako Udalak, kiroldegirako. "Erabiltzaileek egindako eskaera bati erantzuna eman nahi diogu erosketa horrekin", adierazi du alkateak. "Herritarrek makina gehiago erabili ahal izango dituzte instalazio horietan", gaineratu dute.

Makina horiek "era egokian" erabiltzeko, kirol-aholkularitza zerbitzua eskaintzen du Kiroldegiak. Monitore bat arduratzen da horri buruz, astean hiru egunetan: astelehen, asteazken eta ostegunetan. Ordubetez egiten du lan, 19:00etatik 20:00etara.

Materiala era apropos batean erabiltzen irakasteaz gain, erabiltzaileek hala eskatzen badute, entrenamendu-plan pertsonalizatuak ere prestatzen ditu irakasleak, norberaren beharren arabera. Zerbitzu horri



Kiroldegiko kardio gela, artxiboko irudi batean.

LASARTE-ORIAKO UDALA

buruzko informazio gehiago nahi duenak, Kiroldegiko idazkaritzan galdetu beharko du.

Erabilera arauak

Udalak gogorarazten die erabiltzaileei badaudela zenbait arau Kiroldegiko materiala ahalik eta modu egokienean

erabiltzeko: izerdia lehortzeko toaila erabili behar dela, makina bakoitza erabiltzeko gehieneko denbora hoge minutukoa dela, gutxienez hamasei urte eduki behar direla gela horietan sartzeko eta entrenamendua amaitu ostean jaso egin behar dela erabilitako materiala guztia.

TXIRRINDULARITZA.

Ostadar SKTko zikloturistak martxan

Hasi dute 2016ko denboraldia Ostadarreko zikloturistek. Aurreneko irteera martxoaren 6an egin zuten, igandez. 55 kilometroko ibilbidea osatu zuten, San Prudentziara iritsi arte. Irten ziren atzo ere, goizean goiz, Amezketara aldera: 60 kilometroz astindu zieten pedalei. Igande honetarako plana ere badute: Zumaiara arteko ibilalditxoa prestatu dute, 60 kilometrokoa.

Urriaren 30ean egingo duten irteerarekin itxiko dute zikloturistek aurtengo denboraldia. Lizartzara joango dira orduko horretan, 54 kilometroko bidea eginez. Martxotik urrira bitartean egingo dituzte irteera guztiak, beraz; abuztuaren oporrak hartuko dituzte. 30 hitzordu finkatu dituzte denera: maiatza, uztailea eta urriaren bosna irteera egingo dituzte; launa martxoan, apirilean eta irailan, eta hiru ekainean.



Ostadar SKTko zikloturistak, iazko denboraldi hasierako afarian.

Agenda

Asteartea 15, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Kirolariak eta erabakitze eskubidea

Gure Esku Dago taldeak 'Eta kirolariak zer diote erabakitzeko eskubideari buruz? Zer erabaki nahi dute?' mahai-ingurua antolatu du. Erabakitzeko eskubidearen inguruko hausnarketak partekatuko dituzte, batez ere, haien arloari begirakoak. Bi lasarteoriatar izango dira gon-

bidatuen artean: Realeko jokalaria Iraia Iparragirre eta Asegarceko pilotari Axier Arteaga. Haiekin batera eztabaidatuko dute Arritxu Iribar kirol kazetariak, Mikel Astarloza txirrindulari ohiak eta Gaizka Garitano futbol entrenatzaileak.

kanpamentuetan ateratako irudien erakusketa ikusgai dago.

Antzerki Topaketa

SASOETA IKASTETXEKO GIMNASIOA
Larunbata 19, 11:00etatik 13:00etara
 Antzerki tailerra. Parte hartu nahi duen edozeinentzat zuzenduta dago. Parte hartu nahi baduzu deitu telefono honetara: 655 847 345.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Larunbata 19, 17:00etan
 Patata tropikal antzerki taldeak 'Kondaira baten truke' haurrentzako antzerkia eskainiko du. Doan.

ABEND GARAGARDOTEGIA
Larunbata 19, 18:30ean
 Andoingo Katramila antzerki taldearen eta Kukuka antzerki eta dantza eskolaren emanaldia. Doan.

FURIA BELTZA
Larunbata 19, 19:30ean
 Telmo eta Haritzen bikarriketatuz gozatu ahalko da. Doan.

ELURTZA
Larunbata 19, 20:30ean
 Amaia Irazabalek 'Eltxoak' lana eskainiko du. Doan.

JLAGI KAFE-ANTZOKIA
Larunbata 19, 21:30ean
 Bea Egizabalek 'Baibo' ipuin saioa eta Anduriña eta Txefok 'Flamenkito' antzerkia eskainiko dute. Doan.

Arratsaldeko Antzerki Maratoira jendea animatu eta kalea girotzeko, taberna batetik bestera kale ikuskizuna izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Ostirala 18, 22:00etan
 Okendo zinema taldeak antolatzen duen zine forumean '45 años' filma eskainiko da. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Igandea 20, 17:00etan
 Haurrentzako zinea atalean, 'Pesadillas' filma ikusgai izango da. Sarrera, 3,80 euro.



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Igandea 20, 19:30ean
 Helduentzako zinea atalean, 'La gran apuesta' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Ostirala 18, 19:30ean
 Danok Kideren XI. Musika Topaketen barruan, Dana hari laukotearen eta Verushka hirukoaren kontzertua.

Proiektzio digitala

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Larunbata 19, 20:00etan
 Lasarte-Oriako udalak eskaintzen

dituen proiektzio digitalen barruan, 'Florenzia y la Galeria Uffizi' dokumentala eskainiko da. Aurrezalmenta, 7,50 euro eta egunean, 9 euro.



Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA
Martxoia amaiera arte
 'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' zikloaren barruan, Gari-koitiz Lasa donostiarrak Tindoufeko

Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hilabete honetan azken astelehena Pazko astelehena izanik, odol ateratze eguna aste bete aurreratu da. Hori dela eta, martxoaren 21ean eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!


Biyak Bat Sevilla eta Caceresera bidaia

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaia antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuak izena eman beharko dute astelehenetik ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

Hemeroteka

Duela 1208 ale



TXINTXARRI aldizkariak 1998ko martxoan, besteak beste, tratu txarrak jasaten dituzten Biktimenzako Laguntza Zerbitzuaren berri eman zuen. gure herrira Eusko Jaurlaritzako zerbitzu honetako hiru kide etorri baitziren. Zerbitzu honen bitartez, horrelako egoeratan emakumeek laguntza legala, psikologikoa eta gizarte mailakoa jasotzen dutela azaldu zuten. Horrelako emakumeek dituzten sentimenduez ere mintzo ziren.

Honetaz gain, erreportajearen 1998an Lasarte-Oriako udaleko Gizarte Zerbitzuko sailak herrian dauden tratu txarreko egoera guztiak detektatzeko arazoak zituela aipatzen zuen. Horregatik, ikastetxeekin lan egiten zela jakitera ematen zuten, "haurren batek jokamolde berezirik azaltzen badu, arazoaren muinera joz gero, bere familia horrelako kasuren bat badagola ikus daiteke".

Era berean, heziketaren garrantzia azpimarratzen da eta salaketek buruz hitz egiterakoan, salaketa jartzeko batz beste hamar urte igarotzen direla adierazten da, baita emakumeek haien bikoteak salatu ostean, haiekin jarraitzen dutela ere.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

Mikel Yarza Hilotz taldeko baxujole eta abeslaria

“Euskal metal eszena osasuntsua da”

Lehenengo lan luzea aurkeztu du Hilotz taldeak: “Giza Ankerkeria”

2012an plazaratu zuen Hilotzek bere lehenengo lana, “Hil ala bizi” maketa. Lau urte beranduago, eta taldean aldaketa ugari eman ostean, “Giza Ankerkeria” kaleratu dute. Wacken heavy metal jaialdi ospetsuan jo ahal izateko lehiaketan parte hartu zuten Oviedon baina, tamalez, ezin izan zuten finalerako txartela lortu. Mikel Yarza baxujole eta abeslariarekin egon gara Hilotzen gaurkotatunari buruz hizketan.

MARTIN VICIOSO

Hara eta hona dabilta azkenaldian Hilotzeko kideak. “Giza Ankerkeria” atera berri dute, eta astebururo dute zita Euskal Herriko txokoren batean. Taldekide Mikel Yarza lasarteoriatarrekin hitz egin du TXINTXARRIK disko berriari eta beste zenbait konturi buruz.

Disko berria duzue “Giza Ankerkeria”. Nolako izan da konposaketa eta grabaketa prozesua?

Aspalditik dator. 2014 urtearen hasieran, maketarekin bi urte eginak genituen eta hainbat kanta borobilduta geneuzkan. Diskoa grabatzeari ekin nahi genion, baina taldekide aldaketak izan genituen eta laukote izatetik hirukote izatera pasa ginen. Denbora horretan konposaketak ere aldatu ditugu, taldekide berriek moldaketak sartu baitutuzte.

Pozik lortutako emaitzarekin?

Hainbat aldaketa eta arazo izan ditugula ikusita, bai. Asko lagundu gaituzte gertuko lagun askok, musikan murgilduta daudenak eta ez daudenak. Beraiei esker hein handi batean soinu ona dauka eta oso gustura gaude lortutako emaitzarekin.

Harrera nahiko ona izan duela dirudi

Bai. Hala ere, oraintxe hasi gara diskoa zabaltzen, eta hedabideei dagokionez denbora pixka bat beharko dugu erantzun zabalagoa jaso ahal izateko. Kontzertu batzuk eman ditugu, eta diskoa jaso duen jendeak, behintzat, ondo hartu du.

‘Ankerkeria’ abestia hiru zatitan banatu duzue. Diskoan kontakizuna ere agertzen da. Disko kontzeptualarekin jolastu duzue.

Bai. Diskoarekin hasi ginenean ez genion irudi orokorra eman. Baina lanketak aurrera zihoan heinean hiru abestien arteko segida egiteko ideia sortu zen.

Kontzeptua landu genuen hortik aurrera, eta gizartearen analisia egin dugu zibilizazioarekin erlaziorik izan ez duen gizaki baten begien

bitartez. Gure mundua eza gutzen du, eta gure jarduna eta bizimoduaren azterketa egiten du.

Heriotza izan zenuten gai nagusia aurreko lanean. Gizartearen dekadentzia oraingoan

Maketa gure lehenengo ekarpena zenez, kontzeptu aldetik mugatuagoa zela esan liteke. Beti kokatu ditugu gure abestiak testuinguru sozial batean, baina orain fronte gehiagotara zabaldu dugu eta botere erlazioak eta gure artean nola funtzionatzen dugun aztertu dugu. Radiografia negatibo hori ikus daiteke.

Mezuari garrantzia ematen diozue?

Benetan mugitzen gaituena musika da, baina letrak ere landu behar ditugu. Errealitateak kezkatzen gaitu eta hitzak badira gure hausnarketak egin eta zabaltzeko tresna.

Thrash eta death estiloak jorratzen dituzue, baina doinu progresiboak tartekatu dituzue oraingoan, ez?

Hitzekin gertatu den moduan, saiatu gara estiloa bera zabaltzen. Maketako kantak gure lehen konposaketak izanik xumeagoak ziren.

Musikari bezala gure abilezia garatzen joan gara, eta beste gauza batzuk egitea ahalbidetu du. Musika estilo ezberdinak, ez bakarrik metala, gustatzen zaizkigu. Aniztasun horrek, gerora, lan aberatsagoa egitera eraman zaitzake. Talde progresiboak gustuko ditugu, eta estilo bakoitzetik interesgarriena hartzen saiatzen gara.

Diskoaren azala nork egin du?

Iñigo Mugerzak. Bizkaitarra da bera. Maketako azala hark egin zuen. Egin zuen lanarekin pozik geratu ginen, eta oraingoan ere hari egin genion eskaera. Normalean atmosfera ilunekin egiten du lan. Oraingoan, berriz, eskatu genion beste motatakoa egiteko, fisikoagoa agian. Haren zatitza ere erronka izan da.

Autoekoiztutako diskoa da. Estudio batera joateak presio



Argazkiaren ezkerrean, Mikel Yarza, Hilotz taldeko baxujole eta abeslari lasarteoriatarra.

handiagoko suposatzen du. Ordu aldetik mugatzen zaituzte, eta diru inbertsio handia da. Ezagutzen ez zaituen norbaitek lan egiteak ere denborari dagokionez oztopo izan daiteke.

Ez dugu inongo erakundearen edo entitatearen babesik jasotzen diskoa aurrera eraman ahal izateko eta, beraz, erabaki genuen gertuko lagunekin egitea. Ander Zubillagarekin grabatu genituen bateriak Tolosan, maketa egin genuen lagun berberarekin. Gitarra Borja Mintegiarekin egin genituen Lezoko bere estudioan.

Nola ikusten duzue euskal heavy metal eszena?

Esango nuke osasuntsua dela. Talde asko daude eta estilo askotakoak gainera. Baliteke heavy klasikoan gabezia egotea. Su Ta Gar eta beste talde arrakastatsuak badaude edo egon ziren, baina gaur egun ez hainbeste. Aipatuko nituzke, esaterako, Numen, Gabezia lasarteoriatarrak, Bullets Of Misery bizkaitarrak edo metal klasikoak egiten duten Evil Killer iruindarrak. Nire ustez, maila handia dago.

Kontzertuei dagokionez osasuntsua da eszena?

Talde txikien mugimendua ez du jende hainbestek babesetzen. Eskaintza badago, baina eskaria agian ez. Ohitura bada Iron Maiden edo ACDC bezalako taldeak datozenean kontzertuetara joateko, baina astebururo tabernetan eta gaztetxetan egiten diren saioetara ez da hainbeste jende hurbiltzen.

Tolosan entseatzeko duzue gaur egun. Taldeek zaila izaten dute praktikatzeko lokalak aurkitzea?

Horri dagokionez, guk zortea

eduki dugu. Lehen Donostian aritzen ginen, baina Etxahun baterijoleak Tolosako Zesuma taldean jotzen du eta bertan du ekipoa. Bertako Udalak kudatzen du, eta egoera onean dago.

Dena den, badakigu inguruko talde askok arazoak dituztela lokalak topatzeko. Donostian zer esanik ez, eta Lasarte-Orian ere ez da erraza izaten. Parapetia utzi genuen utzita zegoelako. Gaztelekuan bada aukera, baina oso mugatua da denbora aldetik, eta gela gutxi daude talde askorentzat.

Bestalde, Euskal Herrian kontzertu ugari eman behar dituzue datozen hilabeteetan. Zer moduz aurkezpen bira?

Kontzertu batzuk egin ditugu dagoeneko. Angelus Apatriarekin aritu ginen Dokan eta Hondarribian Anestesiarekin, esaterako. Diskoak iritsi gabe ziren oraindik, eta alde horretatik pena hartu genuen. Izan ere, ikusle askoren aurrean aritzea aukera bikaina zen guretzat diskoaren aurkezpenari begira.

Nabari dugu laukote gisa hainbeste kontzertu ez ditugula eman. Hirukote moduan, nire ustez, lanketa dugu egiteko oraindik, baina gustura ibili gara, dena den.

Lasarte-Orian aurkeztuko duzue diskoa?

Ez dugu ezer zehaztu, baina gustatuko litzaiguke. Politizaten da festetan jotzea, esaterako. Nire ustez, zaila da Lasarte-Orian kontzertuak lotzea. Elebeltz dago, alde batetik, baina Udalak bere aurka hasitako prozeduraren ondorioz ez dakigu zer gerta-

tuko den. Taberna gehienak, bestetik, nahiko txikiak dira, eta egoera duin batean jo ahal izateko ez dute ematen.

Nahiko genuke, hala ere, herrian aurkeztu. Jendeak diskoa entzun eta ezagutzeko aukera paregabea izaten da eta.

Ez duzue Wacken jaialdian jotzeko txartela irabazi. Nola baloratzen duzue esperientzia?

Oso esperientzia positiboa izan da. Finalera sailkatzea oso zaila zen, izan ere, oso maila altuko taldeek hartzen zuten parte. Estatu mailako txapelketa zen. Gehienek oso ondo zekizkiten txapelketaren nondik norakoak eta prest zeuden.

Hala ere, azpimarratu nahiko nuke aberasgarriena guretzat harreman berriak egitea eta taldeak ezagutzea zela. Horien bitartez, etorkizunean kontzertu gehiago antolatzeak aukera izango dugu Euskal Herrikan kanpora.

Disko berriko abestiek osatzen dute oraingo kontzertuetako errepertorioa?

Abesti berriak aurkezteko dauzkagu. Disko osoa jotzen dugu eta maketako bizpahiru kantekin borobiltzen dugu kontzertua, hasierako grabazio horiek ere mantentzeko. Hala ere, muturrekoenak sartzen ditugu. Izan ere, estiloa gogortu dugula uste dut, eta hasierako abesti batzuek ikuskizunaren intentsitatea jaitsi dezakete.

Maketako abestiak eskatzen dizkigute batzuek oraindik. Berriatua adibidez eske geratu zen baten bat. Agian gehiago jo beharko ditugu. Egia da diskoak bidea egin arte, dauzkagun zaleek hasierako kantak ezagutzen dituztela.